

Euskararen erabilera Bizkaiko Foru Aldundian. Nondik gatoz eta nora goaz

Amaia Ugarteburu

Eginak dira euskararen ezagutza eta erabilera neurtzeko lanak. Ondorio nagusienetako bat da bi adierazleei dagozkien zifrek gora egin dutela azken urteotan. Gero eta euskaldun gehiago dago, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasi dutenei esker, batez ere. Hezkuntza-sistemak eta euskaltegiek, besteak beste, lagundu dute horretan, ezbairik gabe. Euskara ere gero eta gehiago erabiltzen da. Baina, erabileraren datuak ez dira nahi bezain asebetegarriak. Ezagutza eta erabilera ez baitira galga berean handitu. Eta abian dira hainbat egitasmo euskara dakiten hiritarrei bidea errazteko hizkuntza erabil dezaten. Artikuluaren egilea Bizkaiko Foru Aldundian ari da trebatzaile. Eta erakunde horretan euskara dakiten langileak erabiltzera sustatzeko lanen gainean egiten du gogoeta. Ahuleziak, mehatxuak, indarguneak, aukerak jorratuko ditu segidako lerroetan. Gogoeta jakingarriak, ezagutzaren alorrean dihardutenentzat ere, azken batean, ezagutza eta erabilera txanpon bereko bi aldeak baizik ez baitira.

0. Sarrera: trebatzaile hori

1. Euskararen ezagutza ez da nahikoa
2. Bizkaiko Foru Aldundiko Erabilera Planak
3. Orain arte egindakoaren balorazioa: ahuleziak eta mehatxuak; indarguneak eta aukerak
4. Gogoeta: non eragin, premiarik larrienak
5. Trebatzailearen zeregina
6. Azken hitza

**0. Sarrera:
trebatzaile hori**

Behin baino gehiagotan, zertan egiten dudan lan galdetzen didatenean, sekulako estualdia izaten dut: “*zer erantzungo dut?, zelan azalduko dut ulergarria izateko?*”. Ez da kontu erraza inondik ere. “Trebatzailea” naizela esaten diet. “*Traba zer?*” “*Euskara TREBATZAILEA*”. Hemen

datoz komeriak: batetik, “trebatzaile” hitza Euskaltzaindiak berak ere ez du jasotzen; eta, bestetik, euskara dakitenak lanean euskaraz egin dezaten trebatu behar ditudala azaltzean, ulertu ez duenaren galdera-ikurra sumatzen dut hizketa-lagunaren aurpegian: *“Zergatik, ordea, euskaraz ikasi duten horiek, titulua duten horiek, ezin dute lanean euskaraz egin? Ez dute behar beste ikasi? Pertsona bat behar dute ondoan euskaraz egin dezatela esateko?”*.

Azken batean, inguruan ditudan langile gehientsuenen iritzirako “la del euskera” baino ez naiz: gramatikako zalantzaren bat argitzen duen hori, edo itzulpenen bat egin diezaiekeena, edo “buenos días” esan arren, “egun on” erantzuten tematzen den hori. Lan honetan hasi nintzenetik, izugarritzko etsipena sentitzen dut euskara ikasten hainbeste denbora eta ordu eman duen jendeak ez duela gaur egun euskaraz lortutako mailaren arrastorik ikustean, edota “egun on” soil bat ere ez duela esaten egiaztatzean. Zer gertatu da? Zer egiten ari gara gaizki?

Bitartean, erabilera-planak han eta hemen; honelako edo halako metodologia; inon diren esperientzia pilotuak... baina lortzen al dugu erabilera areagotzea?

1. Euskararen ezagutza ez da nahikoa

Euskara irakasten, trebatzen, lantzen... gabiltzan asko eta askoren helburua euskararen “normalizazioa” da. Eta nola jakin normalizazio hori noiz lortzen den? I. Usarraldekin eta I. Martinez de Lunak kaleraturiko Bizindar Etnolinguistikoari buruzko ikerketan dioten moduan: *“erabilera da euskararen normalizazioaren adierazle adierazgarriena”*. Bestela esanda, zer da hizkuntza baten normalizazioa lortzea?

Bere erabileraren hedapen funtzional, demografiko eta geografikoa lortzea. Hizkuntza hori zenbat, zertarako, zenbatek edo gizarteko zein zereginetan erabiltzen den jakiteak emango digu bere egoerari, bere “normalizazio-mailari”, buruzko informaziorik zehatzena.

Gurean, zalantzarik gabe, normalizazio-prozesuan emandako lehen urratsak euskara-eskoletatik eta itzulpenetatik etorri dira. Aldundian bertan ere, 20 urtetik gora dira bertoko langileak euskalduntzen hasi zirela, eta urte hauetan asko dira hizkuntza-eskakizunen bat lortu dutenak. Baina arlo honetan aurrerapausoak egin badira ere, bistan da euskararen erabilera ez dela neurri berean hazi.

Uste zen ezagutza hedatu ahala, eta belaunaldi berriak lan-munduan sartzearekin batera, automatikoki, euskara erabiltzen hasiko zirela lanean; eta, horrela, urte batzuen buruan, Aldundia euskaldundua egongo zela hein eder batean. Aurrean dugun errealitatea bestelakoa da: ezagutzak ez du erabileran espero zitekeen gorakadarik ekarri; are gehiago, igoerarik izan bada ere, oso txikia izan da. Horrek euskara arloan lanean ari garen guztion artean alarma gorria piztu du: zer egin euskararen erabileran eragiteko?

Teorian, eskoletan eta euskaltegietan ezagutza nahikoa ematen diegu etorkizuneko hiztun berriei bizitzako ohiko zereginetan hizkuntza

horretan moldatzeko gai izan daitezten. Baina badirudi etenen bat gertatzen dela, hutsuneren bat: batzuetan pertsona horrek motibazio nahikorik ez duelako, beste batzuetan eskolatik kanpo hizkuntza hori erabili ahal izateko gune egokirik ez duelako... Hainbat arrazoi dira; kontua da prestatu dugun hiztun horrek ez duela ezagutzatik erabilerrako jauzia egiten.

Horretaz kezkatuta, erabilera bultzatzeko planak diseinatu eta burutzen hasi ziren hainbat eta hainbat lekutan: enpresa, udal, erakunde, eta abarretan. Lan honetan, Bizkaiko Foru Aldundian helburu horretarako (erabilera bultzatzea) abian jarritako ekimenez arituko naiz: jardun horretan izan dudana eskarmentuaz. Horretarako, azkeneko urte hauetan ezagututako esperientzia jasoko dut.

2. Zer egiten da Bizkaiko Foru Aldundian euskararen erabilera sustatzeko?

Abiapuntua jartzearen, esanenez 90eko hamarkadaren inguruan hasi zirela erabilera-planak martxan; Bizkaiko Foru Aldundian ere 1996 aldera hasi zen lehen erabilera plangintzaldia.

Plangintzaldi bakoitzak, Bizkaiko Foru Aldundian behintzat, lau pabost urteko iraupena izan ohi du eta berorietan erabakitzen da, esaterako, zein zerbitzu edo atal izango den elebiduna, zein lanpostuk zein hizkuntza-eskakizun izango duen, itzulpenetarako irizpideak, hizkuntza ofizialen erabilerrako irizpideak zein izango diren..., azken batean, hainbat eta hainbat kontu garrantzitsu, duten eragina aintzat hartuta.

Plangintza horietan sartzen da gure hausnarketarako gaia ere: euskararen erabilera sustatzeko jarduera-egitasmoak.

Aurretik esan bezala, 1996 aldera hasi zen Bizkaiko Foru Aldundian lehen plangintzaldia, hain zuzen ere, Nekazaritza sailean. Sail horretan egokitzen joan zen erabilera-plan bat martxan jartzea, bertoko hizkuntza-egoera kontuan hartuta: batetik, uste zelako sail honekin harremana zuten herritar askok euskara egingo zutela; eta, bestetik, bertan euskara lan zein zerbitzu-hizkuntza gisa erabiltzen zuten euskaldun zahar batzuk zeudelako.

Euskaldun zahar horiek erabilera hedatzeko aktibo izan zitezkeela pentsatu zen. Horien bitartez, euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza modura erabiltzen ez zutenen artean euskararen erabilera indartu nahi izan zen, euskara erabiltzeko gai zirela ikusaraziz, eta, hartara, euskaraz zuzentzen zitzaizkien herritarrei zerbitzu hobea eskainiko zirela.

Horretarako, zenbait talde antolatu ziren, atal edo zerbitzu bereko pertsonen osaturikoak. Astean bitan biltzen ziren taldeok, eta bilera horietan interes orokorreko gaiak eta eguneroko lanarekin zerikusia zuten gaiak aztertzen ziren, ahoz eta idatziz; bizkaiera ere lantzen zen (ahozkoaren ulermena) herritarrekin zitzuten harremanen arabera.

2000. urtean, bertan behera geratu zen saiakera hori: ez zegoen benetako konpromisorik eta langileek ez zuten planaren helburuarekin bat egin (euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza legez hedatzea). Planaren helburua

ere orokorregia zen; ez zen zehaztasunik egin: euskara gehiago erabili, baina noiz, norekin, zein egoeratan... Ez zen konpromisoen betetze-maila neurtzeko tresnarik ere jarri.

Nekazaritza saileko saiakerak ez zuela ibilbide luzerik aurreikusita, 1999an, Kultura sailera hedatu zen plana hizkuntza egoera egokia eta enplegatuen aldeko jarrera baliatuz (bertako zerbitzuburu batek plana abian jartzeko interesa erakutsi zuen).

Bide beretik, 2001ean hasita, beste hainbat sailerara hedatu zen, betiere, langileen eskabideei erantzunez: Gizarte Ekintzara, Ogasun sailera, Herri Lan eta Garraio sailera, Berrikuntza eta Ekonomi Sustapenera, Herri Administrazioa, Ingurumenara, Hirigintza eta Udal Harremanetara, eta Lan eta Trebakuntza sailera.

Aire freskoa behar zuen erabilerak. Gainera, pentsatu zen euskararen aldeko jarrera hedatzea mesedegarri izan zitekeela etorkizunean; eta, bide batez, sail bakoitzean erabileran urrats sendoagoak emateko baldintzak bete zitzaizkien atalak identifikatzen lagun zezakeela fase honek. Hasiera batean, arduradunei ematen zitzaizkien lanean euskaraz trebatzeko modulu hauen berri, eta beraiek erabakitzen zuten zerbitzu edota atalean martxan jarri ala ez. Ondoren, langileen artean zabaldu zen parte hartzeko aukera (arduradunen adostasuna tarteko). Zabaltze honek, oraindik ere, indarrean dirau.

Gogoan hartu behar dira, betiere, planaren helburua eta ezaugarriak. Helburua: Bizkaiko Foru Aldundiko langileek euskara gero eta gehiago erabiltzea, bai lan-hizkuntza den aldetik, baita zerbitzu-hizkuntza den aldetik ere. Ezaugarriak: langileek borondatez hartuko dute parte, eta parte-hartze horrekin batera, ahal duten neurrian, euskara erabiltzeko konpromisoa hartuko dute.

Helburua euskara erabiltzea denez gero, parte hartu ahal izateko, euskara jakin egin behar da; hau da, gutxienezko hizkuntza-gaitasuna eduki behar du langileak. Bizkaiko Foru Aldundian 2.HE edo parekoa eskatu da.

Eta zein da erabileran eragiteko tresna nagusia? Moduluak: astean ordu eta erdiko bi saio edo hiru ordu betekoak. Moduluok ohiko euskalduntze-prozesua bukatu eta euskara erosotasunez erabili ahal izateko gai diren, baina, laneko testu eta gai orokorrak lantzeko ziurtasunik ez, eta, batzuetan, zailtasunak ere izan ditzaketenei zuzenduta daude.

Eskaintzan egokitzapen batzuk egin behar izan dira; horrela bada, lanpostuari dagokion euskara-maila lorturik ere, gaitasunean atzera nabarmen egin duten langileei begira, birziklatze-modulua antolatu da. Helburua: aurretik lortutako maila berreskuratu, edo, behintzat, horretara hurbiltzea.

Antolatzen diren saio horietan, ahal dela, zerbitzu edo atal bereko langileak batera jartzen dira. Bertan, langile guztientzat intereseko izan daitezkeen gaiak lantzen dira; batetik, ohiko inprimakiak, ahozko eta idatzizko lan-egoerak, bizkaieraren ulermena; eta, bestetik, administrazio atal bakoitzeko testuak eta lan egoerak.

Talde-saioetatik kanpo langileek trebatzailearengana jotzeko aukera dute behar duten guztietan.

2001 horretatik gaur egunera denbora luzea igaro da; eta, hasiera batean, erabilera-moduluak hiru urterako proposatu baziren ere, ugari dira oraindik aipatutako moduluotan jarraitzen duten langileak (zenbait taldetan parte-hartzaile aldaketak izan diren arren). Hala ere, aitortu egin behar da talde horietan ilusioa eta sinesmena galtzen ari direla, eta, hasieran Nekazaritzan gertatu zena gerta ez dadin, ezinbestekoa da egokitzapen batzuk egitea.

Langile askok eta askok saioetan jarraitzeko beharrezana adierazi dutela ikusita, beste proposamen bat egin zaie: zerbitzu edo atal batean, langile guztiek edo gehienek interesa izanez gero, laneko espedienteen zirkuituak aztertu eta lantzeko saioak antolatzea. Horrela, 2005-2006 ikasturtean, Herri Lan saileko Desjabetzapen eta Ukitutako Zerbitzuen Zerbitzuan, zazpi langilek (zerbitziburua barne) hartu dute parte ahalegin berri horretan.

Helburua: gehien erabiltzen dituzten lan-espeditenteak lantzea aitzaki, zerbitzu horretan euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza izatea. Saioetan, astean behin, espedienteen zatiak landu dira, ahoz eta idatziz. Saioetan bertan eta saioetatik kanpo, euskara ahoz erabiltzea lortu dute langileek, eta, neurri txiki batean, idatziz ere bai.

Ogasunean bereziki aipatzekoa da Behin-behineko Likidazioen Ataleko likidatzaile batzuek osaturiko taldea; maila onekoak baitira, eta lan eta harreman-hizkuntza modura erabiltzen baitute euskara.

Horien eginkizuna, besteak beste, errentaren gaineko aitortpenarekin loturiko errekurtsoei erantzutea da. Talde horretan, beraien lana hain zehatza izanda, errekurtsu horiek lantzeko erabili behar dituzten baliabide linguistikoak bereziki landu dira, izan ere, beraien helburua lanean euskaraz egiteko (idazteko orduan, batez ere) behar besteko gaitasuna izatea da, PFEZrekin zer ikusia duen terminologian janztea.

2006-2007 ikasturtean ere, Kultura saileko Kirola zuzendaritzan eta Udal Kirolaren atalean, interbentzio bi burutu dira. Helburuak honako hauek dira: Zuzendaritzako bileretan izango diren ahozko interbentzio gehienak euskaraz izatea; Udal Kirol eta Kirol Azpiegitura Atalean, euskara lan-hizkuntza izatea ahoz zein idatziz; eta KIROLBIDE batzordeko jardueretan hizkuntza-irizpidea kontuan hartzea.

Balorazioa: Zuzendaritzako bilerak euskaraz izatea lortu da hasieratik, baina euskaraz egiteko ohiturarik ez duen kide bat sartu da, eta, harrez geroztik, gehienetan, erdaraz egiten dute. Atalean, berriz, emaitzak hobekiak izan dira: langileek eztabaidatu, onartu, eta sinatu egin dute jarduera-protokolo bat. Izan ere, egoera aproposa izan da, parte-hartzaileen euskara-maila proposatutako helbururako egokia izan delako, eta atalburuak funtsezko rola bete duelako: lider informala, akuilu,... izan da.

2007-2008 ikasturtean, Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saileko Erosketen eta Horniduren Atalean ere, Ataleko buruak eskatuta,

interbentzio bat abiatu da. Helburua: Euskara lan-hizkuntza eta harremanetarako hizkuntza izatea. Egindakoaren balorazioa ona da: ataleko bilerak euskaraz egiten dituzte, ataleko kideen arteko mezuak euskaraz bideratzen dira, leihatilara hurbildu diren gehienei euskaraz egiteko aukera eman zaie... Langileak gustura agertu dira hartu eta betetako konpromisoekin; azken batean, benetako eraldaketarako aukera bada-goela ikusi dute. Hala ere, keixaren batzuk agertu dituzte: programa eta dokumenturen batzuk gaztelaniaz daude (Administrazioak hartutako konpromisoa gorabehera).

Horrela bada, bide hori aurrekoa baino egokiagoa izan daitekeelakoan, Aldundiak hemendik jotzea erabaki du jada abian dagoen plangintzaldi honetan (2008-2012): *EraMi* edo Erabilerrako Mikroplanak abian jarritz. Administrazio-atal batean, ataleko kideen borondatez, euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ahaleginei laguntzeko balioko dute mikroplan horiek. Horrelako plan bat martxan jartzen den atalean langileek euskara hutsean burutu ahal izango dute beren lana, itzulpenetara jo gabe, aplikazio informatikoetan euskarazko bertsioak izan beharko luke lehentasuna, langileei hizkuntza-prestakuntza berezia eman beharko litzaieke ikerketa-interbentzioen bitartez, lanposturako prestakuntzan ere euskarari bideak irekiaz...

EraMi bat ezartzen den administrazio-atalean kide guztiek behar adinako euskara-maila izan beharko dute (gutxienez lanpostuaren HE), kide guztien adostasuna behar da, eta euskara lan-hizkuntza bihurtzeko ikerketa-interbentzioa burutuko da.

Ikerketa-interbentzioen bidez, administrazio-atalean eraldaketa (euskaraz lan egitea) burutzeko proposamenak egiten dira. Horretarako, eraldaketa hori oztopa dezaketen aldagaiak zein diren aurkitu eta positibo bihurtzeko esku-hartzea programatzen da. Horren adibideak ikusi nahi izanez gero, ikusi *Eralan ikerketa-proiektuak 2008*.

Ahuleziak

3. Orain arte egindakoaren balorazioa: ahuleziak eta mehatxuak

- Neurketarik ez da egin. Ez dago datu zehatzik eta horrek izugarri zailtzen du azterketa serioa egitea; senez jokatzen da gehiegitan.
- Moduluetan jarri da indar handiena. Zerbitzu eta atal gutxi batzuetan baino ez da bestelako proposamenik egin.
- Iraupena. Erabilera-moduluak talde bakoitzean hiru urterako baino ez baziren planteatu ere, ez da bukaera, ez helmuga argirik markatu.
- Bitarteko helburuak. Helburu nagusia euskara gehiago erabiltzea da; hala ere, bitarteko helburuak falta dira.
- Konpromisorik ez. Egiatzko orduan, langileei saioretara joatea beste konpromisorik ez zaie eskatzen; horrela, nekez lortuko da lanean erabiltzeko konpromisoa langileek, beren kabuz, hartzea.
- Euskararen Erabilera Planaren eragina oso txikia izan da. Izan ere, gehikuntza antzekoa izan da erabilera-taldeak dauden lekuetan zein erabilera-talderik ez dagoen lekuetan.

- Birziklatze-modulari dagokionez, astean bi edo hiru saio eginda, ez dirudi erabilera-prozesuan aurrera egin daitekeenik; horixe da trebatzaileen iritzia. Gainera, giroak ez die laguntzen modulu hone-tan parte hartzen dutenei inguruko langile euskaldunekin euskara erabiltzen.
- Taldeen antolakuntza. Taldeak antolatzeko irizpideen artean daude: zerbitzu eta atal berekoak izatea, langileen artean maiztasunez interakzioa izatea, eta, antzeko euskara-maila izatea. Kontua da, askotan, taldeak ez direla behar bezain homogeneoak; eta bereziki langileen artean interakziorik ez badago, edo lan-funtzioak osagarriak ez badira, zaila da guztien interesei erantzutea eta hizkuntza-jokabideetan eragitea.

Mehatxuak

- Erdararekiko joera. Kontuan izan behar da langile askok lehenengo sozializazio-prozesua gaztelaniaz burutu duela, gaztelaniaz bizi direla, eta beste aukerarik irudikatu ere ez dutela egiten. Hizkuntza-jokaeretan eragitea, horrelakoetan, benetan zaila da.
- Langile askok ez du ikusten zerbitzua euskaraz emateak inolako baliorik duenik; are gehiago, euskaraz jardutea zama gisa hartzen da, oztopo gisa: sarritan, euskaraz egindako lana bueltan datorkie, espediente horren zirkuituan euskara ulertzen ez duen baten eskuetara heldu delako.
- Euskara ikasteko motibazioa, langile gehienek kasuan, instrumentala da: promozionatuak izateko. Ondoren, erabilera-planean parte hartzeko motibazioa euskara-mailari eutsi nahi izatea izan ohi da, besterik gabe.
- Administrazioaren inplikazio falta: hizkuntzari ez zaio behar bezalako garrantzirik ematen, eta, bigarren, edo hirugarren mailan geratzen da. Ez du ardura lana zein hizkuntzatan egiten den; egitea nahikoa da. Arduradunek, euskararen erabileran eredu izan beharko luketen arren, sarritan, ez dute hizkuntza-eskakizunik, eta berauek dira gaztelania lehenesten dutenak.
- Langileen mugikortasuna. Zenbait sailetan arazo bihurtu da hizkuntza-egoera bera ere egun batetik bestera aldatu egiten delako. Honek esku-hartze edo interbentzioen eragina kolokan jartzen du.
- Legea. Momentuz legeek ez dute bermatzen herritarrek Administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko duten eskubidea; ezta langileek beren lan-hizkuntza aukeratzeko dutena ere.
- Euskara-maila egokia dutenen presentzia eskasa. Fermin Lazkano ikertzailearen esanetan, atalase-maila %40ren inguruan dago; puntu horretatik aurrera euskalduntzen den pertsona bakoitzeko, hiztun bat gehiago irabazten du erabilerak.

Indarguneak

Indarguneak eta aukerak

- Egia da, honelako taldeak antolatu diren zentroetan, nahiz eta langileen lehen hitza gaztelaniaz izan, norbait euskaraz zuzentzen zaie-nean, zuzenago, jariotasun gehiago eta ziurtasun gehiagoz erantzuten dutela. Hau da, langile horiek euskaldun pasiboak dira, baina lehen, ezta hori ere.
- Birziklatze-modulari dagokionez, langileen balorazioa ona da: hizkuntza-gaitasuna ez galtzeko, maila apaleko elkarrizketak izan ahal izateko, eta oso testu errazak idatzi ahal izateko balio omen du.
- Erabilera Mikroplanak abian jarri diren ataletan emaitzak onak dira: badirudi bide egokira hurbiltzen ari dela Aldundiko plana. Plangintzaldi berrian ere bide horri ekiteko asmo argia agertu du.
- Interbentzio-proposamenen diseinuan langileek beraiek ere parte hartzeak proposamena bereganatzea dakar; eta hortaz, gero zailagoa dirudi planean adostutakoa ez betetzea.

Aukerak

- Ezagutza-maila asko gehitu da Aldundian azkeneko urteetan: langileen %48k egiaztatu du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna, eta, horrek euskara erabili ahal izateko aukerak zabaldu egiten ditu.
- Aldundiak ikastaroak antolatu ditu, planak diseinatu eta beharrezko baliabide guztiak erraztu ditu.
- Plangintzaldi berrian bi hizkuntzen erabilera bermatzeko borondatea azaldu da, bai zerbitzu-hizkuntza moduan (herritarrek zerbitzua, gutxienez, hizkuntza bietan jasoko dute, ahoz zein idatziz), bai lan-hizkuntza moduan (langileek beraiek ere aukeratu ahal izango dute).
- Azken urteetan ikasketak euskaraz egin dituen hainbat langile hasi da lanean Aldundian. Langile horiek inongo oztoporik gabe euskaraz aritzeko gaitasuna dute, eta gainontzekoen artean euskararekiko jarrera eta portaera aldatzen lagun dezakete, gaitasun hori behar bezala aprobetxatuz gero.
- Langileen artean euskara lan eta zerbitzu-hizkuntza moduan erabiltzeko prestutasuna hedatu egin da; izan ere, orain arte egindakoa, asko ez bada ere, ez da alferrik izan.
- Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute zerbitzua euskaraz; oraindik gizartearen presioa nahikoa ez bada ere, garrantzitsua da goranzko joera hori.

4. Gogoeta: non eragin, premiarik larrienak...

Erabileran eragiten duten hainbat faktore landu behar dira; ez baita nahikoa hizkuntza-gaitasunean eragitea, edota baliabideak euskaraz jartzea. Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosozialaren arabera, bi aldagaik baldintzatzen dute erabilera: batetik, subjektuaren

testuinguruaren euskaldunen presentzia, eta, bestetik, subjektuek duten euskal identitatea eta euskararen ezagutza maila.

Nire ustez, testuinguruan euskaldunen presentziak ez ezik, ingurukoek euskararenganako duten jarrerak ere eragina izan dezake; beraz, testuinguruaz arituko naiz. Bestetik, euskal identitateaz hitz egin ordez, subjektuaren jarreraz arituko naiz; azken batean jarrera identitatearen ondorioa baino ez da-eta.

Ezagutzari gagozkiola, atalase-maila %40n kokatzen omen da; eta Aldundiko datuen arabera, %48k egiaztatua du lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna. Beste kontu bat da, benetan zein ezagutza-maila dute, izan ere, horien artean batzuk 1. HE baino ez dute; bestetik, jakin egin beharko genuke lortutako mailari eusten dioten gaur egun ala ez. Gainera, ezagutza horren nolakotasunari ere erreparatu egin beharko genioke. Benetan 2. HE lortu duen batek lan euskaraz egiteko gaitasuna du?

Lortutako ezagutza zein eratakoa den baloratzeko orduan, eragina izan dezaketen beste aldagai batzuk ere badira: ikas-prozesuan zeri begira prestatzen ditugu ikasleak? Ezagutza hutsean geratzen gara ala erabilgarritasunari erreparatzen diogu? Zer-nolako garrantzia ematen zaio komunikazioari? Bada garaia hizkuntzaren balio komunikatiboari lehenetsia eman, eta euskararen irakaskuntzaren helburua eta ikasbi-deak gramatikaltasunetik komunikaziora eta egokitasunera moldatzeko.

Testuinguruari gagozkiola, ezagutzan gora egiteak inguru egokia lortzen lagunduko du; baina, lehen esan bezala, horretaz aparte, bestelako baldintzak ere sortu beharko dira: aldeko jarrera, bitarteko egokiak, legearen bermea, errekonozimendua eta balorazioa... Eta hauek, aldi berean, motibazioan, eta, ondorioz, norbanakoen jarreran eragin egingo dute. Ez ditugu gaztelaniaz lan egiten dutenak alboratu behar; horrek mesfidantza sor dezake eta giroa nahastu. Horiek ere planaren berri izan eta egingo denarekin ados egon behar dute.

Moduluen eraginkortasunaz gogoeta egitea merezi du; bereziki, hizkuntzarekin kontakturik ez izan eta lortutako maila galdu duten horiekin zer egin. Moduluak planteatzekotan, guztientzat interes orokorreko diren inprimaki edota idazkiak landu litezke; betiere, helburu eta epe argiak jarrita.

Landuko diren inprimaki edota idazki horiek ere, benetan, komunikaziorako bitarteko egokiak izan beharko lukete. Bide horretan lan handia dagoelakoan nago, eta idatzi eta inprimakiak euskaraz zein gaztelaniaz egokitze beharrez larria dela esaten badut, nirekin ados egongo zaretela uste dut.

Nork ez du eskuartean izan administratibotik bidalitako testu ulertezin horietako bat? Egokitzapen horren ardura ez da itzultzaile baten gain utzi behar. Horretarako testuak, gaztelaniazkoa zein euskarazkoa, moldatu egin behar dira eta moldatzailea lan horretan aditua izan behar da. Itzultzailea ezin da gai guztietan aditu izan; izatekotan, arlo horretako

adituaren prestatzaile izan behar du itzultzaileak. Egokiena atal edo zerbitzu bakoitzeko (komunikazio-bolumenen arabera) talde bat litzateke. Eta hortik aurrera sortuko diren testuak euskaraz eta gaztelaniaz batera sortu; ez batean sortu eta bestean itzuli.

Momentuz, lanean jarraitzeko egoki ikusten da interbentzioen bidetik hasitako bideari ekitea; betiere baldintza batzuk kontuan hartuta: kideek hizkuntza-gaitasun egokia izan behar dute; langileek atal berekoak izan behar dute eta elkarrekin egin behar dute lan; eta taldeko arduradunak ere parte hartu behar du. Talde horietako langileek, ahal dela, ez dute postua aldatu behar interbentzioak dirauen artean.

Interbentzio-proposamenak parte hartuko dutenekin adostu behar dira: proposamenaren diseinua parte-hartzailea izan behar da. Ondo zehaztuta geratu behar dira urte horretarako egitekoak zeintzuk diren eta bakoitzak hartuko duen konpromisoa zein den; horrela, etorkizunean era errazean neurtu ahal izango da helburuen betetze-maila, eta, hein berean, egokitzapenak errazago egingo ditugu.

Norbanakoen jarreraren eragin nahi badugu, garrantzitsua da motibazioan eragiteko bitartekoak jartzea. Lehenago esan dugun bezala, inguru egoikiak, euskaraz lan egitea errazten duenak ere, lagunduko du motibazio gehitze horretan: lana euskaraz egiteko oztopoak izateak motibazioan era negatiboan eragiten du, jakina.

Horrekin batera, errekonozimenduak eta balorazioak aldeko jarrera bultzatuko du, eta, ondorioz, motibazioa. Egiten duten horri ez ezik, euskarari berari eta euskaraz lan egiteari balorazioa eta prestigioa eman beharko litzaioke: ugari dira Aldundian kalitatearen Q-a lortu duten atal eta zerbitzuak. Kalitatearen K da bultzatu beharko genukeena; euskara eta zerbitzuaren kalitatea lotuta egon behar baitira.

Hainbat lekutan hain ezagunak diren “Mintzalagun” taldeak ere ez daude soberan. Horrekin zuzenean lanean eragingo ez dugun arren, egunerokotasunean elkarrekin euskaraz egiteko ohitura eta erraztasuna hartzea lagungarri izan liteke.

Gaur eguneko enpresa handietan gero eta gehiago arduratzen dira langileen arteko harremanez eta aisiaz; izan ere, aski frogatua dago lan giro onak emaitza onak dakartzala. Beraz, laneko giro ona hobetzeko, eta, bide batez, euskara bultzatzeko, zenbait ekintza proposatu daitezke “Mintzalagun” erara: eguneko irteerak, mendi-irteerak, kirol-jarduerak, jarduera kulturalak, ikastaroak... Ez legoke gaizki, horretarako Aldundian euskara bultzatzeko zenbait langileren artean sortutako taldearekin batera elkarlanean aritzea (berriro).

Bestetik “hizkuntza-bultzatzaile” informalen akuilu-lana ere oso kontuan hartzekoa da. Izan ere, badira Aldundian euskara-maila ona duten eta euskararen aldeko jarrera duten langileak, guztien artean aski ezagunak, eguneroko jardueran euskarari lehentasuna ematen diotenak, eta ingurukoak motibatzen eta zirikatzen lan ikaragarria egiten dutenak. Horiekin lan berezia egin beharko litzateke: beharbada erabilera-planetan arduraren bat ere har dezakete, plana bera partekatzea baino ez bada ere.

5. Trebatzailearen zeregina

Plana burutzeko, langileekin elkarlanean bederatzi trebatzaile gabilta, momentu honetan, Aldundiaren Normalizazio ataleko teknikariaren koordinaziopean. Sarritan, ordea, trebatzaileon eginbeharrak zehazteko zailtasunak izan dira. Zer da trebatzailea? talde-dinamizatzailea? teknikaria? itzultzailea? irakaslea? ala denak batera? Argigarria izango delakoan hona hemen Isasik egindako ekarpena:

- Trebatzailea ez da langileari euskara irakatsiko dion irakasle partikularra. Langileak euskara ikasi behar badu, ohiko prestakuntza jaso beharko du Trebatzaileak, betiere, euskaraz egin beharrekoarekin lotutako prestakuntza zehatza eta bideratua emango dio langileari.
- Trebatzailea ez da langileari bere idatzizko ekoizpena euskaratuko dion itzultzaile partikularra.
- Trebatzaileak ez du langilea behartzen lana euskaraz egin dezan; hori erakundearen erantzukizuna da. Trebatzaileak laguntza ematen dio euskaraz lan egin behar duen langileari, erakundeak eskatzen diona bete dezan.
- Trebatzailearen lana ez da talde-dinamizatzailea izatea, ez eta animadorea edo sustatzailea ere. Dena den, bere lana hobeto egiteko, beharrezkoak izango ditu harremanetarako erraztasuna eta dinamismoa.

Eta zer da trebatzailea?

Zer da, bada, trebatzailea? Trebatzailea administrazioko langileari euskaraz lan egiteko hasteko edota erabilera areagotu eta hobetzeko) laguntza, gidaritzea eta orientabidea eskaintzen dion teknikaria da. Trebakuntza da, beraz, trebatzailearen bitartez langilearen eskura jartzen diren laguntza, orientabide eta baliabide multzoa, bere lana euskaraz egin ahal izan dezan, hau da, lanpostuko euskararen erabilera areagotzeko eta hobetzeko. Trebakuntza eta euskararen erabilera, beraz, lotuta doaz ezinbestean.

Eta pentsatzen geratu naiz. “Ohiko” euskara irakaslearen funtzioa ez da hori? Zer dela eta bereizten da orain “trebatzailea”? Beharrezkoa da? Bestelako prestakuntza akademikoa eskatzen du? Eta eskatzen badu ere, aitortu egin behar, trebatzaile lanetan gabiltzan askok eta askok ez dugula irakasle izateko prestakuntzatik apartekorik.

Bestetik, badirudi, horren arabera, trebatzailea eta teknikaria ez direla gauza bera; ez dakit, ordea, behar beste hitz egin den bereizketa honi buruz. Trebatzaileak teknikariarekin batera lan egingo badu ere, badirudi, harreman zuzenagoa izango duela langileekin; eta teknikariak, berriz, lan “burokratikoagoa” egingo duela ematen du: hizkuntza-egoeraren azterketa, planaren diseinua, ebaluazioa... eta behar bada, trebatzailearen lanaren koordinazioa ere.

Badirudi, azkenaldian, espezializatorako joera nagusitu dela, eta hori euskararen arlora ere heldu zaigulako inpresioa dut: irakaslea, dinamizatzailea, didaktikaria, materialgilea, trebatzailea, teknikaria... Gustatuko litzaidake honi buruz hausnartzea denok, eta benetan

pentsatzea ea horrek zer eragin dakarren: alderako da? Alderako bada, jasotzen dugun prestakuntza egokia da?

Era berean, uste dut halako prestakuntza berezitua jasotzea beharrezkotzat jotzen badugu, administrazioak berak baduela nolabaiteko ardura, eta horretarako bitartekoak jarri beharko dituela. Hizkuntzari prestigioa emateaz gain, hizkuntza hedatzen lan egiten dutenen lanbidea ere prestigiatu egin beharko da. Horrela, agian, egunen batean “*el/la del euskera*” baino zerbait gehiago izango gara.

Oraingoz, prestakuntza ez bada, ondo legoke arlo honetan gabiltzan guztiontzako gune bat izatea, guztiok informazioa eskura izateko eta zalantzak eta lorpenak partekatzeko.

6. Azken hitza Eskertzekoa da azkenaldi honetan erabilera bultzatzeko egindako aha-
legina: horien artean Soziolinguistika Klusterra bera eta bere eskutik
datorkigun EraLan ikerketa-proiektua, lan-arlo honetan egiten diren aha-
leginak batu nahian. Baina, ezin dugu atzera begira geratu, eta urratsak
ematen ez ezik, urratsak asmatzen ere hasi beharrean gaude.

Bibliografia

Ibon Usarralde, I. eta Martinez de Luna, I. 2004. *Euskal Hizkuntza Komunitatearen Bizindar Etnolinguistikoa*. Andoain. Soziolinguistika Klusterra.

Garcia Fernandez, I. 2004. *Euskararen erabilera azaltzeko eredu psikosoziala*. BAT aldizkaria 53.

Lazkao F. (2009-02-21) Berria: *Euskara erabiltzeko arrazoiak*. II. Euskal Soziolinguistika jardunaldiak.

Isasi, J. 2009. *Erabilera planak herri-administrazioetan*. Euskara teknikarientzako lan-jardunaldiak. Bilbon, 2009ko urtarrilaren 27 eta 28an.

Soziolinguistika Klusterra (2008-11-05) Eralan ikerketa-proiektua. *Lan munduan nola eragin erabileran?* Bizkaiko Foru Aldundia: Kirola euskaraz.

BFA. Bizkaiko Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren IV. Plangintzaldia.

BFA. Bizkaiko Foru Aldundiaren 22/2009 FORU DEKRETUA, otsailaren 17koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena (BAO. 38. zk. 2009, otsailak 25, asteazkena).